XALBADOR. IZANA ETA IZENA

Eneko DORRONSORO-ren dokumentala



Projekzioa

Antoine Abadia aretoan

Zokoburun - HENDAIAn

2015eko maiatzaren 29an, ostirala

20:30etan

Sarrera: 6€

Antolatzailea: ***AKELARRE Elkartea***

SINOPSIA :

Ezagunak dira Xalbadorren bertsoak; ezaguna txistuak txalo bihurtu zitueneko eguna. Eta ezaguna da Xalbadorren heriotzaren dramatismoa: bere jaioterrian, omenaldi bat egiten zitzaion bitartean.

Sortze-izenez Ferranddo, Urepeleko Xalbadorrenia etxaldean sortu eta bizi izan zen. Artzain-laboraria zen ogibidez; baina bertsoari eskaini zion bizitza. Eta hori egin ahal izateko, norbaitek behar etxeko lanetan!

Bere lau seme-alaben bitartez egin dut Xalbador bertsolariarengandik Ferranddo laborariarenganako bidea; eta aurkitu ez badut ere, Urepeleko mendi hegaletan bere ahotsa entzun izanaren irudipena daukat. Kantari ari zen.

Iraupena: 90 minutu inguru.